

Hernaniko Udaleko Gobernu batzarrak 2026ko martxoaren 05ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HITZARMEN BIDEZKO DIRU LAGUNTZAK: 2026RAKO EGITASMOAK ETA AURREKONTUAK; DOBERA

Hitzarmenean jasota dagoenaren arabera, Dobera Euskara elkarteak 2026rako euskara normalizatzea helburu duten egitasmoak aurkeztu ditu.

Aurkeztutako aurrekontuan, Udalaren aldetik 32.000,- euroko diru laguntza jasotzea aurreikusi dute, Euskara sailean aurkeztutako egitasmoak bideratzeko. Euskara delegatuak ezagutzera eman du 2026ko udal aurrekontuetan 32.000 euro izendatuta daudela Dobera Euskara Elkartearen urteko jardueretarako eta diru kopuru hori izendatzea proposatu du.

Diru laguntza honela bideratuko da:

Ordainketa era:

2026ko martxoan %75a - 24.000,- €
2027ko otsailan likidazioa - 8.000,- €

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak otsailaren 26ko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela Gobernu batzarrak **AHO BATEZ erabaki du**

1.- 2024ko martxoaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako hitzarmena Hernaniko udalak Dobera Euskara Elkartearekin sinatutakoa, berritzea.

2.- 2026ko udal aurrekontuetako dirulaguntza bideratzea hitzarmenean jasota dagoen ordainketa moduan eta epeetan. AD-2026-255

KONTUSAILA.- 02.481.02.335.00.2026. "Zuzeneko erregimenean emandako Euskara Zerbitzuko dirulaguntzak".

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorriz

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Aitor Iztueta Garaikoexea
Behin-behineko udal Idazkaria
Hernanin 2026ko martxoaren 10ean

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoen bidez egiaztatu dezakezu.

